



Estatuek ahalegin gutxiren truke lortu zuten telekomunikazioen monopolioa eta duela gutxi arte mantendu dute. Horrek berarekin zenbait arazo sortzen du: lehiarik



ez dagoelako eboluzioa ez da behar bezalakoa eta prezioak sarri egon ohi dira eskaintako zerbitzuen kalitatearekin desorekan. 1984rako nabaria zen telekomunikazio-merkatuaren egitura aldatu beharra; sistema zaharrak ez baitzuen

liberalizazio-haizeak eta bertan urte askotan zehar paperik garrantzitsuena izan duten herrialde bakoitzeko PTTen (Post Telephone & Telegraph, hau da, herrialde bakoitzeko telefoni erakunde publikoaren) monopolioari amaiera ematea lan zaila gertatzen ari da, batez ere (merkatu honen erakargarritasuna dela eta) 2000. urtean Europako langileriaren % 60 telekomunikazio-arloan egotea espero delako. Europako Batasunean (EB), 1992ko urrian egindako bileran erabateko adostasuna zegoen. Gaur egun telekomunikazioak garatzeko oztopo handiak daudela pentsatzen zuten denek. Oztopoetako batzuk hauek ziren: zerbitzu aurreratu eza, mugak zeharkatzen dituzten zerbitzuak erabiltzeko ordaindu beharreko tarifa garestiak, abiadura handiko linea alokaturik eza... Bestalde, telekomunikazioen hazkundearen urteko % 8,5ekoa da, gainerako sektore guztien buru delarik. Ondorioz, beharrezkoa da araudi berria sortzea, Europako Batasu-

Azken urtetako erronka: telekomunikazioen liberalizazioa

Olatz Arbelaitz & Pepe Rivadeneyra*

Gaur egun telekomunikazioek garrantzi handia dute. Telefonoa adibidez, eguneroko bizitzan oinarritzkoa da. Baina ez dago hau bakarrik. Erosoago bihurtuz gure bizitza aldatzen duten beste batzuk ere badaude: telegrafoa, fax-a, posta elektronikoa, ordenadore pertsonala, telefonia higikorra, irrati bidezko mezularitza...

nahikoa malgutasun. Produktu eta zerbitzu berriak garatzeko behar den abiadura ere ez zuen eskaintzen.

Liberalizazioa European: prozesu motela

Argi zegoen telekomunikazioen eboluziorako beren inguruan zegoen araudia aldatzea beharrezkoa zela. Eboluzioaren hasiera Estatu Batuetan izan zen. Orduarte monopolioa zuen AT&T (American Telephone & Telegraph) merkatu librea pasatzea onartu behar izan zuen. Europara berriz, beranduago iritsi ziren

Marconik lehen irrati-emisioa egin zuenetik euri franko egin du. Telekomunikazioaren garapena gertatzeko araudia aldatzea ezinbestekoa gertatu da. Aldaketarik garrantzitsuena estatuek monopolioa galtzea izan da.



nean telekomunikazioen garapena zuzena bultzatzeko. Batzordean proposamen ezberdinak aurkeztu ziren, hartu beharreko erabakia egokia izan zedin:

- Liberalizazio-prozesua eta oraingo egoera mantentzea.
- Bai tarifa eta bai komunitate-mailako inbertsio-arloan araudi zabala sortzea.
- Ahozko telefoniaren zerbitzu guztiak liberalizatzea.
- Ahozko telefoniaren zerbitzuetan lehia zabaltzea, EBko partaide diren estatu guztientzat.

Telekomunikazioekin zerikusia duten 130 erakunde (erabiltzaile, hornitzaile, operadore, sindikatu eta erakunde profesionalak) bat etorri ziren proposamenetan egokiena zein zen erabakitzean eta ahozko telefoniaren zerbitzu guztien liberalizazioa beharrezkotzat jo zuten. Baina horretarako eman beharreko pauso eta epeak erabakitzeke garaian ez zen erabateko adostasunik egon. Liberalizazio honi esker, ekonomi arloan abantailak agertuko lirateke lehiaren ondorio zuzen gisa, garapena ere areagotu egingo litzateke berritze-prozesua azkarrago burutuz, erabiltzailearentzat aukera gehiago egongo lirateke bere behar eta posibilitateen arabera egokien gertatuko litzazkioken produktu eta zerbitzuak aukeratzeko, eta azkenik, hainbesteko garrantzia duen balibide nazionala entitate publiko eta pribatuen artean banatzeko aukera egongo litzateke. Baina arriskuak ere badituela esan beharra dago; lehia handiagoak, telekomunikazio-erakundeen arteko egoera kontrajarriak daudelako eta komunitateko herrialde bakoitzaren merkatu-egiturak desberdinak direlako gogoeta-ingurune baten beharra sortzen baitu. Guzti horregatik araudiaren helburu nagusietariko bat lehiak eduki ditzakeen eragin negatiboei aurre egitea da.



Europar liberalizazio-prozesua motela izan da. Monopoliok amaitaraztea zaila gertatu da, Estatuak ez baitiote merkatu handi horri muzin egin nahi. 2000. urtean Europako langileriaren % 60 telekomunikazioaren-arloan egotea espero da.

Politikaren martxa gutxi gorabehera aurrean aipatutakoa izan arren, ez doa errealitatearekin bat. Adibide gisa terminal- eta zerbitzu-merkatuak liberalizatu zirenetik benetako lehia eratu ahal izateko arauak eta antolakuntza finkatu ziren arte denbora asko igaro zela aipa daiteke. Komunitatean produktuen eta zerbitzuen merkatuak irekitzeko eta beren arteko lehia gardena izan dadin behar diren baldintzak sortzeko egiten ari diren ahalegi-

nek, oraindik ez dituzte espero ziren fruituak eman. Merkatu bakarra lortzeko egin diren ekintzek, hau da, zerbitzuen ustiapen- eta arautze-funtzioen banaketak, merkatuen bateratzeak, geroko merkatuen sortzeak, etab.ek ez dute eskaintza handiagotu; ezta merkatuaren hazkundera sortu ere. Baina benetako helburuak lortu ez badira ere, merkatuen dinamika dela eta egitura-aldaketak gertatzen ari dira sektorean. Joera garbiak

ageri dira. Adibidez: industri konzentrazioa, gobernuen politika orokorragoaren ondorio den telekomunikazio-operadoreen pribatizazioa, zerbitzu-hornitzaileen elkarketa (hirugarren herrialdeetara sartu ahal izateko) etab. Merkatu hau azken finean, egoera errealean oinarrituz baino gehiago, gerorako itxaropenen arabera mugitzen da.

Azken borroka: GSM

Europar momentu honetan GSM (Global System for Mobile Communications. Euskaraz esanda, Komunikazio Higikorretarako Sistema Globala, hau da, telefono higikorren bidezko komunikazio-sistema estandarra) da komunikazio-mailan indar handiena duen gaia. 92. urtearen bukaeran bederatzai herrialdetan hasiak ziren zerbitzu hau eskaintzen. GSMak edozein erabiltzaile-ri, edozein herrialdetatik eta

edozein herrialderen sistema erabiltzeko gaitasuna ematen dio. Teknologia digitala erabiltzen du eta, ondorioz, honek eskaintzen dituen abantaila guztiak biltzen ditu: zerbitzu-kalitate hobea, espektro irrati-elektrokoa hobeto aprobetxatzea, mantenu eta instalaziorako erraztasuna, komunikazioen segurtasun handiagoa, gerora oinarritzeko telefono sarera konektatzeko aukera eta zerbitzu ugari eskuratu ahal izatea. 1995etik aurrera zerbitzu hauek Europako edozein puntutan (eta kanpoko zenbaitzuetan ere bai) erabili ahal izango direla espero da. Adibidez, Australia, Zeelanda Berria, Singapur, Latinoamerika, Arabiar Emirerri Batuak eta Golkoko beste zenbait herrialdetan dagoeneko zerbitzu hauek erabili ahal izateko zenbait lizentzia dute. Oso denbora gutxian, erabiltzaileak ugaltzen ari dira, eta ondorioz, enpresentzat oso erakargarri gertatzen ari da GSMa ustiatu ahal izatea.



Liberalizazio-prozesuaren erakusgarri kablerik gabeko telefonia higikorra da. Europar GSM izeneko eredu nagusituko dela aurrerik badaiteke ere, homologaziorako bidea luzea izango da. Estatu Espainolean Telefonicarekin batera lehiari arituko den bigarren enpresa Airtel izango da. (Irudian Telefonica konpainiak telefono higikorretarako ezarri duen lotura-gunea ikus daiteke).

Espainia atzetik doa

Estatu Espainiarreko egoerari dagokionez, pixka bat atzeratuagoa dago. Liberalizazioari buruz Europako Batasunean erabakitakoaren arabera, Espainian telexa, telegrafoa eta oinarritzeko telefonian ezik, 1924az gero Telefonica-k duen monopolioari amaiera eman beharra dago, baina oraindik lan asko falta da helburu hori lortzeko:

- 1992an irrati bidezko bilaketa liberalizatu zen, horretaz probetxu 4 talde izan zutelarik. Lau talde horietako bat BBKk bultzatzen duen Cersa izeneko enpresa-partzuergoa izan zen. Talde hauetako batzuk, sinatutako kontratuan aipatutakoa baino abiadura azkarragoan ari dira zerbitzuak prest jartzen.
- Teorian 1993ko urtarrilean hasi zen bigarren zerbitzuaren liberalizazioa Espainian: datu-konmutazioarena, bai pakete eta bai zirkuitu bidez. Baina benetako liberalizazioa atzeratu egin zen. Telefonica-rekin lehia izan nahi duten enpresek konexio bakoitzagatik hasierako kuota, alokatzeagatik aldizkako beste bat eta erabilerako beste bat dituen tarifa aurkeztu beharko dute.
- Telefonia higikorren arloan, Telefonica-z gain ustiapenean parte hartuko duen enpresa zein izango den erabakitzeko lehiaketa-deialdiak jakinmin handia sortu zuen. Dakigunez, Airtelek lortu zuen Telefonica-rekin batera lehiari aritzeko ustiapen-baimena, telefonia higikorreko bigarren eragilea izango delarik. Azpimarratzekoa da BBK eta Kutxa Airtel taldeko kideak direla eta Airtelen telefono higikorrek Zamudioko Parke Teknologikoan egiten ari direla, Ericsson enpresan, hain zuzen.



Komunitate Autonomoetan bide desberdinak

Komunitate Autonomo desberdinetan egoera ez da berdina: bakoitza bere sareak sortzen ari da.

- Andaluziako gobernuak komunikazio-plan estrategikoa ezartzeko asmoa du, erabat Telefonikak egindako eskaintzen menpekora den eta behar bezalako parametroak eskaintzen ez dituen gaur egungo egoera gainditzeko. Proiektuaren barnean, lehenbizi, ahots-, datu- eta irudi-komunikazioko Administrazio Autonomoaren beharrak beteko dituen sare korporatiboa eratu nahi da. Geroago, telekomunikazioen liberalizazioak uzten duen heinean, kanpokoei zerbitzuak zabaltzeko asmoa dago.

Hiru proposamenetan onena iruditu zaienari jarraituz egingo da proiektua, Andaluziako Junta eta SICRES (Sistema Integrado de Comunicaciones Red Electrica-Sevillana) elkarlanean arituko dira. Dirudienez, LOTaren araudiak onesten duen arren, proiektua ez zaio batere gustatu Telefonikari. Andaluziako Juntak mehatxuak ere jaso omen ditu.

- Euskal Herriko Autonomi Elkartea, badirudi Estatu Espainiarreko enpresa-munduan buru bihurtu dela berriz ere Euskal Plan Teknologikoari esker. Plan Teknologiko honen atal gisa, Euskalnet izeneko Frame-Relay erako lehen sare publikoaren sorrera martxan da.

Euskalneten helburua zuntz optikozko sarea martxan jartzea da. Lan hau pausoka-pausoka egiten ari da; horren adierazgarri dira gure hiriburuetako kaleetan zehar ikus ditzakegun obretako asko; kableak sartzeko beharrezkoa baita



kaleak irekitzea. Datorren ekainerako EHAeko hiru hiriburuen artean lan egin dezakeen sarea prest egotea espero da. Bitartean, martxan da ahots-, datu- eta irudi-garraiorako mikrouhin-sare bat. Hau gero ere lagungarri izango da: zenbait lekutan lurraldea malkartsua dela eta ezinezkoa baita kableak pasatzea.

Oraingoz, Administrazioak baino ez du edukiko sare berri honek eskaintzen dituen abantailaz baliatzeko aukera. Gainera erabiltzaileek liberalizazioa zabaldu arte itxaron beharko dute.

Telekomunikazioen egoera orokorra aztertu ondoren, badirudi, bai Europan eta bai Espainiako Estatuan ere, zitzu bizian garatzeko bidea hartu duela. Lasterketa horren ondorioz onenak erabiltzaileak aprobetxatuko omen ditu, lehiak emaniko pizgarriari esker. Jadanik begi-bistan dago Telefonica ahaleginak egiten ari dela (merkatu librean parte hartuta salneurri onak eskaintzeko) eta erabiltzailea lor ditzakeen zerbitzuez eta salneurriez ohi zuena baino gehiago kezkatzen hasi dela. Zoritxarrez, berri pozgarri eta etekin hobez gain, beste zerbitu ere ekarriko du libera-

Euskal Autonomia Elkartean Euskalnet enpresa arduratuko da telekomunikazio-sistemen gaineko kontrolaz. Zuntz optikozko sarea martxan jartzea eta ahots-, datu- eta irudi-garraiorako mikrouhin-sarearen ustiapena dira, une honetan, Euskalnet-ek eskuartean dituen zeregin nagusiak.

lizazioak. Telekomunikazioak gaur egungo ekonomiaren arlo estrategiko direnez, Estatu Espainiarra orain arte monopolioa mantentzen saiatu da, baina liberalizazioarekin, gaur egun jasaten ari garen kolonizazio ekonomiko horretan aurrerapauso bat eman dezakete kanpoko nazio askok. Oraingoz, Eusko Jaurlaritza hasia da lanean prozesu honek eskutik aldegin ez diezaion. Bere kokagune egokiaz baliatuz Euskalnet izeneko sarea eraikitzen ari da. Dena den, monopolioak bukatzeaz daudenez, argi dago etorkizuneko inguruko telekomunikazioen merkatua defendatzeko modu bakarra lehiakortasuna dela, eta enpresek eta erakunde publikoek hau ulertu beharra dute prozesua egokia izan dadin.



* ZETIAZ - Elhuyar